



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL

2022 A.P.I. 26
ABR. 26

SARRERA/ 2632 INTERNA/
ENTRADA SALIDA

Dokumentu mota / Tipo de documento: OSOKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: AIARTZA, JON (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Data / Fecha: 2021.04.26

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12\11\03\00\00089

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Aparteko orduak ezabatzeari eta enplegu berriak sortzeari buruz // Relativa a la eliminación de las horas extraordinarias y creación de nuevos empleos

- | | |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Eusko Legebiltzarrak adierazten du EAEko enpresetan egindako aparteko orduen kopurua murriztea bide positiboa eta beharrezkoa dela enplegua sortzeko, lan-baldintzen kalitatea hobetzeko, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizteko, eta zainketen kontziliazioa eta erantzunkidetasuna errazteko. 2. Eusko Legebiltzarrak uste du enpresetan ordutegi-erregistro bat egin behar dela, datuen fidagarritasuna eta aldaezintasuna bermatzeko eta, gutxienez, zerbitzuak ematen diren egun bakoitzean lanaldia hasteko ordua eta amaitzeko ordua adierazteko, hori baita legezko zein legez kanpoko aparteko orduak ez egiteko modurik onena. 3. Eusko Legebiltzarrak eskatzen du sektoreko negoziazioaren bidez neurriak ezar daitezela legez kanpoko aparteko orduen aurka borrokatzeko, eta Lan Ikuskaritzari sala diezaiotela ordu horiek | <ol style="list-style-type: none"> 1. El Parlamento Vasco manifiesta que la reducción del número de horas extras realizadas en las empresas de la CAE es una vía positiva y necesaria para crear empleo, mejorar la calidad de las condiciones laborales, reducir la brecha salarial entre mujeres y hombres, y facilitar la conciliación y corresponsabilidad de los cuidados. 2. El Parlamento Vasco considera que la obligación de un registro horario en las empresas que garantice la fiabilidad e invariabilidad de los datos y refleje, como mínimo, cada día de prestación de servicios, la hora de inicio y la hora de finalización de la jornada, es la mejor forma de evitar la realización de horas extraordinarias tanto legales como ilegales. 3. El Parlamento Vasco insta a que a través de la negociación sectorial se implementen medidas dirigidas a luchar contra las horas extras ilegales y se denuncie a la Inspección de Trabajo su |
|---|--|



egiten direla, lan-arloko araudiaren zaintza eta kontrola errazteko.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ordutegi-kontrolarekin lotutako ikuskapen-kanpainei eusteko, enpresetan aparteko orduak egiten diren kontrolatu ahal izateko eta, horrela, lan-araudian jasotakoa bete dadin.

realización a fin de facilitar la vigilancia y control de la normativa laboral en este sentido.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener las campañas de Inspección relacionadas con el control horario a fin de perseguir la realización de horas extraordinarias en las empresas y cumplir así lo contenido en la normativa laboral.

EA-NV

ES-SV